

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### SEGURTASUN SAILA

## 909

*EBAZPENA, 2023ko otsailaren 7koa, Segurtasun Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena, zeinaren bidez jakinarazten baita Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean argitaratu dela 2023ko otsailaren 3ko Ebazpena, kide batzuk Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Lehen Kategoriako karrerako funtzionarioak izendatzen dituen.*

Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren zuzendari nagusiak 2018ko otsailaren 6ko eman zuten Ebazpenaren, Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Lehen Kategorian sartzeko hautaketa prozeduraren deialdiari buruzkoaren, hamaseigarren oinarriarekin bat etorriz (otsailaren 12ko EHAA, 30. zk.), eta Segurtasun Saileko egitura organiko eta funtzionalari buruzko urtarriaren 19ko 6/2021 Dekretuaren 9. artikulua ematen dizkidan eskumenak direla bide, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Jakinarazten da 2023ko otsailaren 6an argitaratu dela Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako iragarki-oholean Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2023ko otsailaren 3ko Ebazpena, kide batzuk Ertzaintzaren Oinarrizko Eskalako Agente Lehen Kategoriako karrerako funtzionarioak izendatzen dituen.

Bigarrena.– Ebazpen honekin ez da amaitzen administrazio-bidea, eta interesdunek, haren kontra, gora jotzeko errekurtsoa aurkez diezaioke Segurtaguneko sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko otsailaren 7a.

Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea,  
MIREN GOITIA GABIOLA.